

S1. ITXASPE KANPINA



Sakoneta ibilbideak harrituko gaitu bere paisaiagatik. Itsaslabarren mugatik doa eta hiru begiratoki panoramiko ditu. Lehen herenean Usarragaundiko flysch beltzaren gunetik doa, Aitzuri hormatzar ikusgarria atze-oihal duela. Mendatagaineiko begiratokira igoko gara biotopoaren osagai guztiez gozatzeko. Mendata-Sakoneta tartea bitxi bat da geomorfologia eta paisaiaren aldetik; Portutxikiko begiratokian amaitzen da biotopoko ekialderako biste-kin. Azkeneko tartea Errotaberriko haran basotsuan barna doa eta ibilbide botaniko gisa pentsatua dago, biotopoko baso aniztasunaren erakusgarri.

S2. AITZURI HORMATZARRA



Aitzuriko paretu buri handia.



Failak geruzen kokapena eta kostaldearen tipologia kontrolatzen du.



Itsaslabarrak eta marearteko zabalgunek (50 or.). Banaketa litologikoa (72 or.). Arrokak (68 or.).



S3, S4.

130 metro garai, Aitzuri hormatzarra biotopoko gainbehera bertikal handiena da eta flyschen arteko banaketa markatzen du: flysch beltza mendebaldera eta flysch kareduna ekialdera.

1. Andutzeko faila biotopoko ezaugarri tektoniko nagusia da eta Behe Kretazeoko flysch beltza (gure oinetan) kontaktuan jartzen du Goi Kretazeoko flysch karedunarekin, berriagoa eta gogorragoa berau. Gogortasun alde horrek itsas higadura kontrolatzen du eta Aitzuri lurmuturra zein Usarragaundi senaia eman ditu, harri karedun gogorragokoa lehena, litologia buztintsuagokoa eta ez hain gogorra, errazago higatu dena bigarrena.

2. Andutzeko faila Aitzuri hormatzarreko norabide azpiparaleloan doa. Horren frogagarri dira hormako estratu bertikalak ebakitzen dituen haustura kopuru handia.

3. Hormaren bertikalitateak eta hain hautsia izateak higakin metaketa eragin dute, hartxingadi deiturikoa, mendi horma handietan berezkoagoa dena.

4. Aitzuriko haitzuloak higadurazko bi hutsarte handi dira, 20 m garai eta sakon, itsasoak eragindakoak higatzeko errazagoa den harriaren gune hautsi bati jarraiki.



AITZURI HORMATZARRAK BANATURIKO BI KOSTALDE MOTA

Andutzeko failak, S3 puntuan xehetasunez analizatzen denak, bi formazio desberdin jartzen ditu kontaktuan: flysch beltza, mendebaldera (gure oinetan), eta flysch kareduna, Aitzuri hormatzarra eratzen duena, ekialdera. Aitzuri lurmuturra eman duten gogortasun eta higadurari aurre egiteko erresistentzia desberdinez gainera, bi formazio horien estratuek orientazio desberdinak agertzen dituzte. Flysch beltzeko geruzek kostalde lerroarekiko orientazio pareloa dute; flysch kareduneko kareharri gogorrak, ordea, ia-ia kostalde lerroarekiko perpendikularrak dira. Egitate horrek eragiten du itsasoaren higadura diferentziala labarraren gainean eta, hortaz, kostaldeko tipologia.

Flysch beltza → Geruza paraleloak



Kostalde lerrozuzena: geruzak kostalde lerroarekiko paraleloak direnean, labarrek erresistentzia bera egiten diote higadurari tarte osoan eta kostalde lerrozuzen estratuekiko paraleloa sortzen da.

Flysch kareduna → Geruza perpendikularrak



Kostalde irregularra: geruzak kostalde lerroarekiko zutak direnean, itsasoak erosoago higatzen ditu geruza bigunago tarteak, eta lurmuturrek eta senaiek osaturiko kostalde irregularra sortzen da.

S3. ANDUTZ: BIOTOPOKO FAILA HANDIA

 Harri argien eta ilunen arteko kontaktua.

 Andutzeko faila eta biotopoaren historia tektonikoa.

 Arrokak (68 or.).
Banaketa litologikoa (72 or.).
Egiturak (92 or.).

 S2, L6, A9.


Flyscheko geruzak sedimentuen dekantazioz eratu ziren itsas azpian, zola gutxi-asko horizontalean. Itsas hondo horrek, Iberiar Penintsula gainerako Europatik bereizten zuenak, bere sedimentuetan 50 milioi urte baino gehiagoko erregistro geologikoa, klimatikoa eta biologikoa bildu zuen, zehazki Behe Kretazeo (105 Ma)

eta Behe Eozenoa (50 Ma) aldietan.

Behe Kretazeoan, Iberiar penintsula, gaurko Britainiatik gertu kokaturik zegoena, biratzen hasi zen erloju orratzen kontrako noranzkoan eta, era horretara, Kantauri itsasoa eta Bizkaiko golkoa irekitzea ekarri zuen. Zabaltze mugimendu horrek moldatu zuen ingurunean, indar


tektoniko hedakorrak pixkanaka-pixkanaka itsas arro sakonak, faila normalek mugaturik zeudenak, sortzen joan ziren, eta flysch beltza ingurune horretan eratu zen. Flysch hori kolore iluneko buztinek osaturik dago, altxaturiko blokeetatik erori ziren hareharritzko geruza turbiditikoak tartekaturik dauzkatala. Apurka-apurka

ingurune hedakorra baretzen joan zen eta arro sakoneko kondizioak ezarri ziren, eta hartan jalki ziren Goi Kretazeoko flysch kareduneko kareharriak.



Faila normalak

Behe Kretazeoko ingurune hedakorra, zeinean faila normalak eratzen diren; horiek bloke hondoratuak eta bloke albatuak eta arroaren gero eta hondoratze handiagoa eragiten dituzte. Ingurune ezegonkor horretan eratu zen Deba Formazioko flysch beltza.



Andutz failaren kokapena

Ingurunea gutxi-asko bareturik egon zen harik eta Iberiar Penintsula europar kontinentearen aurka jotzen hasi eta arroa konpresiozko indar tektonikoak jasaten hasi zen arte. Sedimentuak tolestu, hautsi eta, azkenean, altxatu ziren eta, ondorioz, euskal mendiak eta Pinioak eratu ziren. Behe Kretazeoko faila normaletako batzuk


berrakibatatu ziren eta orduan era konpresiboan funtzionatu zuten. Aurrean dugun Andutzeko faila horren adibide ona da, eta kontaktuan jartzen ditu Deba Formazioko (Behe Kretazeo) flysch beltzeko materialak Itziar Formazioko (Goi Kretazeo) flysch karedunarekin. Faila horrek seguruenik Behe Kretazeotik funtzionatu

zuen eta gero ingurune konpresiboan berrakibatatu zen eta Andutzeko faila sorrarazi zuen, zeinak harri erregistroko 4 milioi urte alde batera uzten dituen Itziar Formazioan. Ezaugarri tektoniko hori biotopoko nagusia da, seriearen atal garrantzitsu bat alde batera uzten duen bakarra. Babesturiko ingurune 8 kilometro labardunen

gainerakoa osatzen duen sekuentziak Lurreko historiaren 50 milioi urtetik gora hartzen du, era jarraituan, geruzaz geruza.

ANDUTZEKO FAILA

Andutzeko failak isla gutxi-garbia du paisaian, oso desberdinak diren bi formazio kontaktuan jartzen baititu. Faila ez da plano bakartu soil bat, mapetan agertu ohi den bezala, baizik eta haustura gune bat, haustura eta desplazamendu plano batzuk dituen. Kasu honetan, haustura gune hau bat dator Aitzuri hormatzarrekin; hori dela eta, paretan haustura gune batzuk marrazten ahal dira eta estratuen orientazioa aldatzen da.



S4.1. ITSASERTZEKO GEOMORFOLOGIAREN MUSEO BAT



 Senaiak eta labarrak.

 Itsasertzeko geomorfologia prozesuak.

 Itsaslabbarrak eta marearteko zabalgunek (50 or.).
Itsaspeko plataformak (56 or.).


 S2, S5, S6, S7, S8, S9.

Estratuek itsasertzeko lerroarekiko duten orientazioak mugatzen du itsaslabbarren morfologia. Mendebalderantz, flysch beltzeko estratuak kostaldeko lerroarekiko paraleloak dira eta itsaslabar lerrozuzena ematen dute. Ekialdean, Sakonetako flysch kareduneko geruzak kostaldeko lerroarekiko zutak dira eta beren higadura diferentzialak lurmutur eta senaien profila ematen du. Puntu honetan, komenigarria da oroitaraztea gure oinetan kokaturik dagoen eta S3 puntuan azaldu den Andutzeko failak markatzen duela estratuen orientazio ezberdina.

-  Marga oso bigunak.
-  Gogortasun ertaineko margakareak.
-  Kareharri oso gogorak.
-  Hareharri oso gogorak.


KOSTALDEKO LERROAREKIKO GERUZA ZUTAK

Kostaldekoko lerro irregularra, lurmuturrak eta badiak. Itsaslabbarrak eta marearteko zabalgunek irregularra, tamaina handikoa.



KOSTALDEKO LERROAREKIKO GERUZA PARALELOAK

Kostaldekoko lerro erregularra eta estratuekiko paraleloa. Itsaslabbarrak eta marearteko zabalgunek erregularra eta txikiagoa.



1) Itsasoak gau eta egun higatzen du itsaslabbarren oina, bloke handiak jautsarazten dituela. Bloke horiek harri koskorretan hautsi, pirlatu eta uhinen higadura ahalmena areagotzen dute.

2) Itsaslabbarrak atzera egiten dute, beren oinetan Kantauriko marearteko zabalgunek handienetako bat uzten dutela. Itsas barruan beste plataforma batzuk daude: itsaspean eta mailakaturik ageri diren horiek antzinako itsas mailen berri ematen digute. Azkeneko glaziazioan, duela 18.000 urte inguru, itsas maila gaurkoa baino 120 metro beherago zegoen.

3) Mendetako ur-jauzi txikia haran esekien adibide ezin hobe da: itsaslabar hauen atzerantzko abiadura erreka-toak harana higatzeko duen gaitasuna baino handiagoa delako lekukolasuna ematen du. Ikus ondoko paretatik oraintsu jautsi izana.

4) Flyscheko geruzak sedimentuen dekantazioz eratu ziren itsaspean. Gero, Pirinioen talkak tolestu eta altxatu zituen. Zabalgunean edo itsaslabbarren ikus dezakegun haustura pila dira horren frogagarri. Haustura horiek harria ahuldu, higadura laguntzen dute eta kanalak moldatzen dituzte zabalgunearen gainean.

5) Sakoneta hondartzan harea finaren kantitatea guztiz aldakorra da, itsasoaren ekarriaren mende baitago. Itsaslabbarren aldean, harea finak leku babesetan dekantatzen dira, horietan tirainak energia galdu eta uhinek karga uzten dutela.



S4.2. LANDAZABAL ATLANTIKOA

Landaredi motak.

Paisaiaren kudeaketa.

+i Landa atlantikoa (140 or.).

+ip S10, S11, S12, S13, S14, E2, E4.


1 Hariztiak: batez ere Arronamendi eta Mendatako arroetan banaturik daude eta soilik 27 ha hartzen dute guztira. Antzina, itsasontziak egiteko zur guztiz gutiziatua ateratzen zuten horietatik; gaur egun hedatzen ari dira bestelako erabilerak bertan behera utzi baitira.

2 Artadiak: hedadura txikiko zuhaitzi trinkoetan banaturik daude eta 15 ha hartzen dute guztira. Gaur zuhaitz txikiak dira berriki zuretarako ustiatu baitira, baina denborarekin berezko tamaina hartuko dute. Biotopoko hedadura handieneko artadia eta hobekien eratua dena, Arantzamendikoa.

3 Pinudiak: han-hemen bakarturiko pinu sail batzuk daude, 30 ha inguru hartzen dutenak. Pinua hazte bizkorreko espeziea da eta zurgintzan erabiltzen da.

4 Txilardi-otadiak: eremu handiak hartzen dituzte biotopoen, batez ere Elorriaga aldean. Aldi jakinetan hazten dira: baso azidofiloak ordezkatzeko faseetan, suteen ondoren edo nekazaritza jarduera bertan behera utzi ondoren.

5 Larre eta belardiak: askoz ugariagoak dira biotopoko ekialdean eta 200 ha-tik gora hartzen dituzte. Aziendarantzako bazka lortzeko landuriko sailak dira, hala segaz moztekoak nola bazkalekutat erabiltzekoak.



S5.MENDATAKO LUIZIAK

Tamaina handiko luizia.




Hegaleko luizia eta Andutzeko failarekiko erlazioa.

+i Itsaslabarrak eta marearteko zabalgunea (50 or.).
Itsasertzeko hondartzak (58 or.).

+ip S2, S6, E3, A3, A9, A14.

Mendatako lur jauzia biotopoko hegaleko luizi handiena da. Jendea ez da horretaz ohartzen malda gutxiko mendi mazela batean gertatu zelako eta jadanik landarediak kolonizatu duelako. Lur jauzi honen mekanika Andutzeko faila sistemaren adarkadura diren faila txikiekin loturik bide dago: faila horiek harria hausterakoan eragiten diote gunehoni eta litekeen irristatze plano gisa funtzionatzen dute.

Bestalde, Mendatako senaia energia ertaineko hondartza baten adibide ona da. Ekialdean, aldian behin, harea lodia edo legar xehea pilatzen da, eta hondartza mugatzen duten bi lurmuturren artean harrapatua gelditzen da.



A) Luiziaren eta guneari eragiten dioten failen airetiko ikuspegia.

B) Haustura azal batek lagunduriko luizi baten eskema, kasu honetan guneko failak. (Iturria: IGME).

C) Luiziaren aurretiko ikuspegia. Aurrealdea 18 metro lodi da, eta bertan luizi baten ohiko nahaspila ikus daiteke. Atzealdean failaren marra ikusten da argi eta garbi.

S6. MENDATAKO UR-JAUZI BITXIA



Ur-jauziak.

Itsaslabarraren higadurak errekaetaren ura biltzen du.


Itsaslabarrak eta marearteko zabalgunea (50 or.).

+ip S9, A3.

Biotopoaren ezaugarri geomorfologikoen arteko bitxienetako bat: haran esekiak. Azalpena erraza da. Higadura eta itsaslabarren atzerakadaren abiadura errekaetaren ubidearen higadura eta zulaketa abiadura baino handiagoa denean, itsaslabarrek partida irabazten dute: harana zintzilik geratzen da eta ubidea itsasora jauzi egin beharrean gertatzen da ur-jauzi txiki baten itxuran. Hori itsasertzeko higadura prozesu oso aktiboa delako frogagarrikoenetako bat da, eta gainera biotopoko errekaetaren ibilbide eta emari eskasek laguntzen dute horretan. Itsaslabarrean zintzilaturiko ur-jauzien adibide onenak: Mendatakoa, biotopoko erdialdean, eta Andikarrekakoa, ekialdean.

Mendatako ur-jauziak, gainera, berezitasun bat du: itsaslabarrak errekaetaren ura bildu izanaren ondorioz eratu da. Duela denbora gutxi, gaur ur-jauzia dagoen aldean itsaslabarraren atzerakadak harrapatu zuen errekaetaren ubidea eta ura labar aldera desbideratu zen, antzinako ubidea utzirik, I-E norabidea zuena eta 20 m inguru aurrerago eramaten zuena. Gaur egun, paleoubide hori sedimentuz eta landarediz estalirik dago, baina bertatik erraz hauteman daiteke oraindik.

MENDATAKO UR-JAUZIAREN EBOLUZIOA



MENDATAKO UR-JAUZI TXIKIAREN BILAKAERA



- A) Hasierako eta gaurko ur-jauziaren kokapena.
 B) Mendatako paleoubidearen ikuspegia.
 C) Faila txiki batzuek eragiten diote alde horri eta bereziki ezegonkorra da, labarretik zintzilik dauden hesoak aditzera ematen dutenez.
 D) Mendata ur-jauzia euritean.



S7.1. GEOMORFOLOGIAREN KATEDRALA

Sakoneta hondartza.

Hondartzaren elementu geomorfologikoak.

Itsaslabarrak eta marearteko zabalgunea (50 or.).
Itsaspeko plataformak (56 or.).
Itsasertzeko hondartzak (58 or.).

S4, S8.


Sakoneta hondartza biotopo guztiko leku erakargarrienetako bat da. Tamaina handiko hondartza hau bi lurmuturrek babesturik dago, horiek ilargierdiaren forma ematen diote, sarturik dauden hondartzen ezaugarria izaten dena. Uhinek zuzen jotzen dute itsaslabarraren oina, hori zulatuta eta harri bloke handiak jautsarazten dituela. Bloke horiek pixkanaka-pixkanaka harri koskor bilakatzen dira, pilatu egiten dira eta berriro oinean jotzen dute labarra, itsasoaren higadura ahalmena areagotzen dutela. Itsaslabarren atzerakada hemen inon baino ageriagoa da, horien oinetan biotopoko marearteko zabalgunea ikusgarriena hedatzen baita.

Sakoneta hondartza, halaber, toki bikaina dugu Itziar Formazioa ikusteko, tartekatuturiko kareharri, marga eta turbidita finez osatua dena.

Sakonetak hondartzan, harearen metaketa irregularra da eta zenbait elementuk baldintzatzen dute: uhinen norabide nagusia, itsaslasterrak eta hondartzaren beraren morfologia. Mendebaldeko alderdia uharri osaturik dago; ekialderantz joan ahala, horiek gero eta txikiagoak dira, harik eta, ekialdeko alderdian jadanik, hondar metaketa garrantzitsu batera igaro arte. Uhinek eta itsaslasterrek norabide nagusiari jarraiki garraiatzen dute harea, hego-ekialderantz. Alde harritsuan, uhinen talkaren energia handiagoa da eta tirainak hondar aleak eraman eta ekialderantz lekualdatzen ditu. Han Aizkaizto lurmuturrarekin topo egiten dute; horrek hesiarena egiten du eta harea bertan harrapatuak gelditzen da.



Sakoneta hondartza itsaslabarretik ikusia.



Sakoneta hondartza handiaren mugak: Mendata lurmuturra (S7) ekialdean (A) Aizkaizto lurmuturra (B) mendebaldean. Marea bizieta, itsaslabarraren oinean hedatzen den zabalgunea ikusgarria da eta kostaldeko lerroaren atzerakada garbia erakusten du. Estratuen paralelotasuna eta haien ezaugarri desberdinek paisaia geologiko bakana sortzen dute, ezin pentsatzeko forma geometrikoak dituenak. Harribilek marearteko zabalgunearen azala higatzen dute uhinek arrastaka garraiatzen dituztenean. Mendebaldearantz, zabalgunea Aizkazo aldean baino askoz leunduago dago, lurmutur horren inguruan are ibiltzea ere zaila delarik (C). Hori, ekialderantz gero eta turbidita lodiago eta gogorragoak agertzearen ondorioa da, higadurari hobeiki eusten diote eta zabalgunean kanal guztiz ikusgarri batzuk sortzen dituzte.

S7.2. SAKONETAKO ITSAS ERRESERBA



Itsasoa.



Sakonetako itsas erreserbaren mugak eta funtsa.

Marearteko zabalgunea (130 or.).
Kontserbazio biologikoaren arauak (24 or.).

E3.



Itsas erreserba integralak biotopo osoko labardun aldeari erantzen zaizkio babes handieneko eremu gisa. Ortoargazkian, Sakoneta hondartzaren erdialgi forma ikusten da.

Marearteko zabalgunea biotopoko ekosistema konplexuena eta aberatsena da. Bertan bizi diren espezie kopuru handiak mareen kondizio aldakorretara egokitu behar izan du, egunean mareek bi aldiz estali eta agerian uzten baitutute. Biotopoko zabalgunearen hedadura handiak eta sarbide zailak ahalbidetu egin dute biodibertsitatea hemen era bikainean gordetzea. Hori dela eta, altxor biologiko honen kontserbazioa biotopoaren helburu nagusietako bat da. Araudiak erreserba integraleko bi gune mugatu ditu: Sakoneta eta Elorriaga (E3). Erreserba guneetan debekaturik dago ezer ateratzea, gune horiek funtsezko bi funtzio betetzen baitutute: giza eraginik gabeko biotaren eboluzioa analizatzea ahalbidetzen dute eta gainerako biotopoarentzat babesleku eta hazi hedakor gisa jokatzeko dute.

Fenomeno berezi honetaz gainera, S8 puntua marearteko zabalgunera iristeko sarbide zuzen bakarretako bat da. Mareabeheran plataformatik paseatzea gomendatzen da, haren berezitasun biologiko eta morfologikoez gozatzearren. Garrantzitsua da eta gogoratu beharra dago erreserba eremu batean eta ekosistema erabat konplexu eta sentikor batean gaudela. Gida honekin batera doazen itsas faunari buruzko taulak (134. or.) guztiz baliagarriak dira espezieak identifikatzeko.

Turbidita gogorren gune batean bermaturik dagoen Aizkaizto murrua ere deigarria gertatzen da; harri horiek higadurari eutsi eta Sakoneta hondartza mugatzen duen lurmuturra eman dute.

A) Errotaberriko erreka toa zuzenean marearteko zabalgunera isurtzen da; bertan, uraldi batean erreka toa garraiatutako harriak koskorak ikus daitezke.

B) Sakoneta hondartzaren ikuspegi ikusgarria Aizkaizto lurmuturretik. Hemendik, S4-S8 puntuen artean zeharkatzen den Itziar Formazioaren ikuspegi bikaina dugu.



S8. SAKONETAURREA, IRISTEN DEN IBAIA



Errekastoaren itsasoratzea.



Itsas mailan itsasoratzearen interpretazioa.

Itsaslabarrak eta marearteko zabalgunea (50 or.).
Banaketa litologikoa (72 or.).

S6, S9, A3, E2.

Leku honetan itsasora isurtzen den erreka Sakoneta eta Errotaberri erreka toetako ura biltzen du, eta itsas mailan isurtzen den biotopoko erreka bakarra da. Ibibilbide honen beraren S6 eta S9 puntuetan azaltzen den bezala, biotopoen itsaslabarren higadura, oro har, erreka txikiek beren ubidearen gainean gauzatzen dutena baino eraginkorragoa eta bizkorragoa da. Era horretara eraten dira haran esekiak eta ur-jauziak.

Argudio horren funtsezko aldagaietako bat zera da: biotopoko haran gehienak oso motzak dira eta gune babestuko mazela atlantikoaren urak bakarrik biltzen dituzte, horrek higadura ahalmen guztiz mugatua ematen diela. Leku honetan gure arreta biltzen duen erreka dagokionez, aldagai hori asko aldatu da zeren Errotaberri erreka toa Andutz mendigune karstikotik baitator, biotopoko ekialdetik beraz. Horrek ur ekarpen etengabea eta gainerako erreka toa baino askoz handiagoa inplikatu du; ondorioz, erreka toaren higadura ahalmena askoz handiagoa da eta bide ematen dio haran honi bere profila itsas mailaraino higatzeko.

Bestalde, leku honek Itziar Formazioaren amaiera eta Aginaga Formazioaren hasiera markatzen du, bigarrenak oinaldeko tarte honetan turbidita aski lodien etengabeko tartekatzeak ezaugarri dituela.

C) Sakonetaurra hondartzaren ekialdeko alderdian Aginaga Formazioa turbiditak guztiz ugariak eta aski lodiak dira. (Argazkia: Gorka Zabaleta).



S9. PORTUTXIKIKO BEGIRATOKIA




Senaia handia, itsaslabbarrak, jaustek eta marearteko zabalgunea.




Itsasertzeko geomorfologia.


1) Flyscheko geruzak jarraera horizontalean eratu ziren itsaspean sedimentuen dekantazioaz. Gero, Pirinioen talkak tolestu eta altxatu zituen, agerian uzten zuelarik historia geologikoaren 50 milioi urtetik gorako liburu bat. Itsaspean eratzeo unean sedimentuen metaketak 4.000 metroko lodiera gainditu zuen.



2) Lehen planoan dugun jauste berria labarrean zintzilik geratu da eta, hortaz, horren erorketa ez du zerikusirik ezpona oinaren zulaketarekin. Horrek frogatzen du higadura ez dela itsasoaren eraginez bakarrik gauzatzen, baizik eta haizea, esprai gatzduna eta euria bezalako agente atmosferikoek ere eragin handiz jardun dezaketela itsaslabbarraren gainean.



3) Askaturiko materialak marearteko zabalgunera erori ondoren birlandu egiten dira, eta ondoriozko harribilak pilatzen dira itsaslabbarraren oinean, uhinaren higadura eta urradura ahalmena areagotzen delarik. Itsaslabbarrak alzera egiten dute eta beren oinetan Kantauriko marearteko zabalgunen handienetako bat uzten dute.




4) Biotopoko haran gehienak I-H norabidean orientaturik daude eta 1 Km baino ibilbide laburragoa dute, eta emari eskasa hortaz. Ondorioz, haran horiek itsaslabbarraren zintzilik gertatzen dira, itsaslabbarraren higadura eta alzarakadaren abiadura handiagoa delako ubideak haranaren gainean duen higadura ahalmena baino.



Itsaslabbarrak eta marearteko zabalgunea (50 or.).
Itsaspeko plataformak (56 or.).
Banaketa litologikoa (72 or.).



E3.



S10. ERROTABERRIKO ARTADIA



Artadia



Biotopoko baso habitaten banaketa

Artea, berezko mediterranean basoa hobekien definitzen duen zuhaitza. Hori dela eta, Gipuzkoako paisaia ozeanikoan han-hemen barreiatutik agertzen diren orban txiki ugariak interes biogeografiko handia dute. Aurreko garaietan, mediterranean klimaren antzekoa genuela, gure eskualde guztian zehar hedaturik zeuden artadiak. Erlikia moduko orbanek irauten dute lurzoru guztiz meheetan, batez ere kare lurretan, malda handiko hegi eguzkit-suetan, isurketa gutxi eta lurreko drenaia ona dutenetan.

Lurzoru horiek ez dute interes agrolologikorik eta horregatik artadiak ez dute hariztiekin bezainbesteko ustiatzerik jasan Era berean, nekazaritza jarduera bertan behera utzi ahal, lurralde osoan nabaritzen den joera berau, erraztu egiten zaio artadiari bere egunean kendu zizkioten eremuak berriro kolonizatzea.

Bidexkan bertan txilardi-otadiaren erakusgarri egokia begiets dezakegu, habitat serial hori fase degradatuei edo aurre-rapenean ari direnei dagokie, eta artadia birsortzearekin loturik daude. Zuhaitziaren inguruetan dagoeneko artadiaren ertz gisa jokatzeko duen landaredi aberatsa aurki dezakegu. Horien artean, nabarmentzekoak dira: gartxu hostoestua (*Phyllirea angustifolia*), txorbeltza (*Rhamnus alaternus*), endalarra (*Smilax aspera*), ereinotza (*Laurus nobilis*), elorri beltza (*Prunus spinosa*),



2.5.3 Landa atlantiko (140 or.)



S4, S11, S12, S13, S14

otxar basatia (*Rubia peregrina*), erratza (*Ruscus aculeatus*), etab. Espezie lagun horiek, gehienbat, mediterranean flora jarraigoari dagozkio eta, gure eskualdean, mota honetako baso masak dira horien babes bakarra.

Errotaberriko artadia biotopoen hobekien kontserbatutiko eta zabalenerako bat da. Lehen planoan artadia birsortzearekin loturiko txilardi-otadia ikus daiteke.



S11./S12. BASO MISTO ATLANTIKOA


Baso mistoa.

Landa atlantikoa (140 or.).

Biotopoko baso habitaten banaketa.

S4, S10, S13, S14

Ibar hondoko basoak, ibaien urez betetzen ziren ibarretakoak bota zituzten laborantza lurak ateratzeko, ibarrak hiri eta industria erabilpenetarako baliatu aurretik. Baso misto eutrofoa, haritza adibide nagusi duena, eraldaketa honetan eremu gehien galdu duen baso formazioa da. Ibilbide tarte honetan oharitzen gara harizti atal soil batzuek bakarrik iraun dutela.

Larreen inguruko alderdietan hautematen da espezie ugartasuna, hala zuhaitzena, haritza (*Quercus robur*) edo lizarra (*Fraxinus excelsior*) bezalakoak, nola zuhaixka itxurakoak, horien artean hurritza, zuhandorra (*Sorbus sanguinea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) edo txorbeltza (*Rhamnus alaternus*) begiztatzten ditugula.

Habitat mota hauetako zuhaitz eta zuhaixka espezie ugariak moldatzen duten baso mota eta egiturak fauna komunitate konplexuak ezartzeko bide ematen du.

S13. HALTZADIAK 1


Haltzadiak.


Landa atlantikoa (140 or.).

Biotopoko baso habitaten banaketa.

S4, S10, S13, S14.

Zeharkatzen ari garen belardia, Gipuzkoako larre guztiak bezalaxe, jatorrian zuahiztiak estalia egon zen: haltzak erreken inguruan eta harizti mistoa gainerako eremuan. Aziendaren presioa apaldu ahala, berezko landarediak espazioa berriro kolonizatze joera agertzen du, mendi hegal hezeagoe-tatik hasita. Haltzadi hurbilaren hazi txikiak barreiatzen dira ingurunean eta, aziendak kimuak jateari ekiten badio ere, apurka-apurka larre aldera hedatzen ari da eta, errekez bestaldean, are artadiaren estaira iritsi da. Zenbait alderditan, haltzadiaren bultzada hainbestearainokoa izan da non abeltzainak dagoeneko lursail hori utzi eta alanbre hesia atzeratu duen.

Lur hezeen alderako joera horretaz gainera, haltzak, hasierako haziera indartsua eta fruitu emate ugaria kontuan izanik, era berean, izaera kolonizatzaile nabarmena du, hainbestearaino non basoa lehengoratzeko hasierako faseetan beretzen dituen lurzoruak, klimaren aldetik, hariztiari bailegoz-kioke. Hala eta guztiz, haritza, hazteko era eta ezkurak barreiatzeko gaitasun txikiagoa direla eta, astiroago suspertuko da eta bere lekua erreklamatzeko dio haltzadi hasi berriari.



Haltzadien zeharkako ardatz bati jarraitzen diote ibaien ubidean zehar eta saiheska hedatzen dira faktore batzuen arabera, hala nola malda, lurzoruen erabilgarritasuna edo, kasu honetan bezala, azienda egotea. Ibairen ezkerreko ertzean, haltzadia era naturalean hedatu da mendi mazelan gora; eskuineko ertzean, aldiz, horren

hedapena bat-batean mozturik gelditu da aziendak kimuak jaten baititu. Normalean, haltzadiaren ondoren, haritz baso mistoa hedatu ohi da eta, gero, malda handiagoetan eta klima egoera mesedegarriagoan, artadiak agertzen dira. Eremua aziendarentzat edo segatzeko erabiltzen denean, larre bihurtzen da, baina jarduera

horiek bertan behera utzitakoan, txilardia, bere lekua berreskuratzen hasten da eta hori baso berri bat sendotu aurreko fasea da.

Haltzadiak.

Artadia.

Txilardi-otadia.

Baso mistoa / hariztia.

Pinudia.

Larrea.



 Haltzadiak.

Gutxitan aurkituko dugu, kasu honetan bezala, paisaiaren elementu bati hain lotua den zuhaitzi motarik. Ia segurutzat eman daiteke isuri atlantikoko ibai guztiek, horien artean Gipuzkoako urbide orok, haltz zerrenda bat daramatela berekin, bazterren paraleloan emana. Zuhaitzi hori ez den lekuan, segurtasun osoz esan dezakegu ibai ertzak eraldatu egin dituztela, laborantza lurrak edo larreak ateratzeko, edo etekin komertzial handiagoko espezieek ordezkatu dituztela, hala nola pinuak edo alboak.

Haltza (*Alnus glutinosa*) tamaina Erdiko betulazeoa Kontinente Zaharreko ibai ertz eta urez bete daitezkeen lurzoru guztietan hedaturik dago bere galeria formazio tipikoan. Nabarmentzekoak dira habitateko gainerako espezieei egiten dien ekarpena eta haren eskakizun urriak.

 Biotopoko baso habitaten banaketa.

 Landa atlantikoa (140 or.).

 S4, S10, S11, S12, S13.

Errotaberriko ibar txikia gorabehera gutxiko ubide bat da, uholde ordoki garrantzitsurik gabekoa, baina bertan haran atlantikoen baso habitat desberdinen banaketa arauak finkatzen dituzten gakoak interpreta ditzakegu.



A) Haltza ar eta eme aleak.

B) Haltzadia Errotaberriko errekan zehar. Larrean kolonizazioa ale batzuk ikus daitezke.





LAPARI: FLYSCH BELTZA 1,910 km / 30 minutu

Ibilbide labur eta erraz hau Debako itsas pasealekutik abiatzen da, hondartzen ondotik, eta biotopoko harri zaharrenetara garamatza: flysch beltza. Formazio honek Zumaiakoa baino gutxiago ezaguna bada ere, puntu guztiz deigarri batzuk ditu, hala nola Aitzandiko tolestura handiak edo Debako noduluak eta septareak.

Bideak, era berean Behe Kretazeoko koral paisaia sartzen gaitu eta ohiz kanpoko hedadura dakarkio biotopoaren erregistro geologikoari.

L6 14 INTERPRETATZIO PUNTU

TEMATIKA




((112))
SOS DEJAK




LURZORUAK



ZABALERA



PROFILA



L1. PASEO BAT BEHE KRETAZEOAN ZEHA

 Debako hondartza.

 Arroko Behe Kretazeorako sarrera.

 Flyscharen sorrera (64 or.).
Arrokak (68 or.).
Banaketa litologikoa (72 or.).


 +ip L2, L3, L4, L5, E1.

Lapari ibilbideak Debako itsas pasealekua zeharkatu eta Behe Kretazeoko paisaia sartzen gaitu. Biotopoko alderdirik mendebaldekoena harri zaharrenek osatua da: Albiarreko flysch beltza (105 Ma). Kolore iluneko formazio honek garaiko ingurune tektoniko aski nahasia adierazten du. Kantauri itsasoak bere lehen urteak betetzen zituen.


Behe Kretazeoan, Iberiar Penintsula, gaurko Britainiatik gertu kokaturik zegoena, biratzen hasi zen erloju orratzen kontrako noranzkoan eta era horretara, Bizkaiko golkoa irekitzea ekarri zuen. Zabalte mugimendu horrek moldatu zuen ingurune hartan, indar tektoniko hedakorrek pixkanaka-pixkanaka ildo sakonez hornituriko itsas hondoa sortzen joan ziren, ildo horiek plataforma garai batzuek bereizten zituela.

Flysch beltza ildo sakon horietan sortu zen, batez ere kolore iluneko buztinek eta hare-harizko geruza turbiditikoek osatua; material horiek eremu kontinentalen higaduratik zetozen, ezpondan behera erortzen ziren kanaletatik, eta itsas hondoa haizemaile turbiditiko handiak sortzen zituzten. L3 eta L4 puntuetan Deba Formazioko flysch beltzaren adibide onak erakusten dituzte.


Plataforma garaietan koralezko uharriak eratu ziren; horiek, geroago, kareharri oso gogorak eta mendiak eman zituzten, hala nola L2 puntutik ikusten den Arno mendia. Koralezko uharriak osatzen zituzten organismoen fosilak L5 puntuan ikus daitezke, itsas pasealekua moldatzen dituzten bloke handietan. L6 puntuak, bere aldetik, Aitzandiko tolesturak erakusten dizkigu, biotopoko ikusgarrienak.



BEHE KRETAZEOKO INGURUNE HEDAKORRA EUSKAL ARROAN



Behe Kretazeoko ingurune hedakorra, zeinean faila normalak sortu ziren eta horiek bloke hondoratuak, bloke altxatuak eta arroaren hondoratzeko progresioa eragin zituzten. Ildo sakonetan eta ezpondan ezegonkorretan sortu zen Deba Formazioko flysch beltza, buztinek eta turbiditek osatuak eta itsaspeko haizemaile handitan jalkiak.



L2. ARNO MENDIKO KORALEZKO UHARRIA

 Arno mendia.

 Behe Kretazeoko koralezko uharriak.


 +ip L5, E1.

Atzealdean dauden mendiak Arno kareharritzko mendigunekoak dira eta 600 metro-tik gorako gailurrak dituzte. Kareharri oso gogorrek eratu zituzten mendi horiek, eta plataforma garaietan garaturiko koralezko uharriez osatu ziren, flysch beltza ildorik sakonenetan eratzen ari zela. Formazio hori, Urgondarreko Formazioa izenez ezaguna, nabarmendu egiten da fosiletan aberatsa eta oso gogorra delako, eta halako munta bat duten euskal mendi gehienak eman ditu: Ernio, Izarraitz, Udalaiz, Aizkorri, Aralar, Anboto, Gorbea...

Begiratoki honek biotopoko itsas azpiko arroak Behe Kretazeoan nolako tamaina zuen imajinatzeko bide ematen digu, ildo sakon bat izan zenaren hondotik plataforma garaietan sorturiko harriak ikusten baititugu.

BEHE KRETAZEKO BERRERAIKETA EUSKAL ARROAN

- 1) Koralezko uharriak: uharrizko kareharriak.
- 2) Ezpanda-arro hondoa: flysch beltza.
- 3) Sakonera txikiko plataforma: kareharriak eta margak.
- 4) Ibai ahoak eta deltak: hareak eta buztinak.
- 5) Itsasertz hareatsua eta aintzirakoa: hareak eta buztinak.



FLYSCH BELTZAREN KOKAERA LAPARI HONDARTZAN ETA UHARRIZKO KAREHARRIAK ATZEALDEKO ARNO MENDIAN.



L3. FLYSCH BELTZAREN BEREZITASUNAK



Kolore iluneko itsaslabarrak tartekaturiko turbiditekin.

Flysch beltza.

Flysch eraketa (64 or.).
Arrokak (68 or.).


L4.

